



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko urtarrilaren 20a

4. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A :

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-26/MOC-00006. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gehienez bi hilabeteko epean abiaraz dezan, Nafarroako Nekazaritzako Batzorde Aholku-emailean, Europar Batasuna-Mercosur akordioaren inpaktuari buruzko berariazko lantalde bat, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen parte-hartzea izanen duena. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (2. or.).
- 11-26/MOC-00007. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitie Nafarroako nekazariei, abeltzainei eta nekazaritzako elikagaien industriari, Mercosur-ekiko merkataritza-akordioa onets daitekeela ikusita egiten dituzten erreibindikazioetan. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).
- 11-26/MOC-00010. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere kezka eta arbuio sakona adierazten baitu, Venezuelako lurraldean aldebakartasunez egindako ekintza militarrek direla-eta. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu dute (5. or.).
- 11-25/MOC-00171. Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita inklusioa, ekitate, gardentasuna eta tratu-berdintasuna berma ditzan Nafarroako hezkuntza-sistemaren eta aniztasuna artatzeko politiken printzipio lagaezin gisa. Osoko Bilkuran izapidetzea (6. or.).
- 11-25/MOC-00154. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita oinarritzko gizarte zerbitzuek berma dezaten beren langile guztiek kobratuko dituztela oinarritzko soldata eta kasuko osagarriak, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen oinarritzko programak eta finantzaketa sistema arautzen dituen uztailaren 15eko 48/2020 Foru Dekretuaren 13. artikuluan jasotakoak. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordeak onetsi du (7. or.).
- 11-26/DEC-00003. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere doluminak eta elkartasuna adierazten baitizkie Adamuzko (Kordoba) tren-istripuan hil direnen familiei eta gertukoei. Eledunen Batzarrak onetsi du (7. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-26/MOC-00006. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita gehienez bi hilabeteko epean abiaraz dezan, Nafarroako Nekazaritzako Batzorde Aholku-emailean, Europar Batasuna-Mercosur akordioaren inpaktuari buruzko berariazko lantalde bat, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen parte-hartzea izanen duena

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita gehienez bi hilabeteko epean abiaraz dezan, Nafarroako Nekazaritzako Batzorde Aholku-emailean, Europar Batasuna-Mercosur akordioaren inpaktuari buruzko berariazko lantalde bat, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen parte-hartzea izanen duena.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren jarraipena Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean eginen da.

Zioen azalpena

Europar Batasunaren eta Mercosur-eko herrialdeen arteko merkataritza-akordioa onetsi da Europan, Europako nekazaritzaren eta abeltzaintzaren

sektoreak gogor erantzun dioten testuinguru batean, uste dutelako akordio horrek lehia desleialeko eredu bat sendotzen duela, nekazaritzako elikagaien ekoizpen-baldintzetan elkarrekikotasunik ez izatean oinarritua.

Akordio horri esker, Europako ekoizleei eskatutakoez bestelako osasun-, ingurumen- eta animalia-ongizateko estandarren arabera ekoiztiko elikagaiak sar daitezke Europako merkatuan; ekoizle horiek, bitartean, Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) funtsen murrizketa eta ekoizpen-kostuen etengabeko igoera pairatzen dute.

Mercosur-eko herrialdeetako zenbait ardurdun instituzionalek publikoki aitortu dute "babes-klausulak" ez direla akordioaren muinaren parte, eta ez direla herrialde horiek beren gain hartutako konpromiso loteslea; aitzitik, behin kaltea gertatuta Europar Batasunak erreakzionatzeko barne-mekanismoak baino ez dira.

Errealitate horrek Europako –eta Nafarroako– lehen sektorea ahulezia nabarmeneko egoeran jartzten du, eta horren ondorioak gizarte osora hedatzen dira, halako moduan non elikadura-subiranotasuna galtzen baita, osasun-kontrola gutxitzen baita eta erosketa-saskia garestitzen baita.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak ezin du jarrera ambiguo edo neutral batean jarraitu politika publikoen etikari, ekoizleen arteko justizia sozialari eta kontsumitzaileen babesari zuzenean eragiten dien akordio baten aurrean.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak bere arbuio politiko eta etikoa adierazten du EB-Mercosur merkataritza-akordioa dela-eta, uste baitu aukera ematen duela bertan sar daitezke Europako ekoizleei eska-

tzen zaizkien osasun, ingurumen eta animalia-ongi-zateko estandar berberak betetzen ez dituzten produktuak, elkarrekikotasunaren eta lehia justuaren printzipioa urratuz.

2. Nafarroako Parlamentuak onartezintzat jotzen du Europako lehen sektorea truke-txanpon gisa erabiltzea nazioarteko merkataritza-akordioetan, eta adierazten du ez dela etikoki defendagarria Europako nekazari eta abeltzainei ekoizpen-estandar handiak eskatzea, eta, aldi berean, estandar horiek betetzen ez dituzten produktuei merkatu berean lehiatzeko aukera ematea, arriskuak eta kostuak kontsumitzailearen bizkarrean jarriz bidenabar.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du gehienez bi hilabeteko epean abiaraz dezan, Nafarroako Nekazaritzako Batzorde Aholku-emailean, EB-Mercosur akordioaren inpartuari buruzko berariazko lantalde bat, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen parte-hartzea izanen duena, honako helburu hauekin:

- Akordioak Nafarroako lehen sektorean izanen lituzkeen ondorioak (ekonomikoak nahiz produkzio eta merkatu arlokoak) zehazki aztertzea.

- Konpentsazio- eta babes-neurri ekonomiko, administratibo eta fiskalen sorta bat definitzea eta proposatzea, akordioaren ondorio negatiboak arindu eta Nafarroako nekazaritza- eta abeltzaintza-ustategien bideragarritasuna bermatu ahal izateko.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-26/MOC-00007. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitie Nafarroako nekazari, abeltzainei eta nekazaritzako elikagaien industriari, Mercosur-ekiko merkataritza-akordioa onets daitekeela ikusita egiten dituzten erreibindikazioetan

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitie Nafarroako nekazari, abeltzainei eta nekazaritzako elikagaien industriari, Mercosur-ekiko merkataritza-akordioa onets daitekeela ikusita egiten dituzten erreibindikazioetan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren jarraipena Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak egiten du.

Zioen azalpena

Nafarroako nekazaritza-erakundeak mobilizatu egin dira aurreko urteetan, Mercosur-ekiko merkataritza-akordioa onesteko aukerarekin bat ez datozela erakusteko. Hemen ez ezik, mobilizazio horiek Espainiako gainerako tokietan ere gertatzen ari dira, bai eta Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan ere.

Nafarroako nekazari eta abeltzainen argudioak herrialde horietako produkzioekiko lehia desorekatuan laburbil daitezke. Izan ere, herrialde horien arauak malguagoak dira, eta ekoizpen- eta ingurumen-eskakizun eta lan-baldintza gutxiago dituzte.

Horrek, sarrerako muga-zergak gainera murriztuko lituzkeen merkatu ireki batean, merkatu hori haien kaltetan desitxuratuko luke, eta, ondorioz, erreka jotzera eraman litzake. Egoera horren aurrean, gizarte osoa haien eskakizunekiko ulerberagoa izatea eskatzen dute, eta nekazaritza-politika hobetoagoa eta mesedegarriagoa izatea.

EBko herrialdeetako enbaxadoreek eta, ondorioz, gobernu nazionalak, ordea, Mercosur-ekiko merkataritza-akordioa onetsi dute gehiengo kualifikatuz, eta Europako Parlamentuaren eta parlamentu nazionalen erabakia baino ez da falta akordioa behin betiko onesteko.

Hain garrantzitsua den eta Nafarroako nekazaritzako elikagaien sektoreari ez ezik Espainiako gainerakoari eta Europakoari ere eraginen liokeen akordio hori iragarri izanak arbuio handia eragin du, ez bakarrik Foru Komunitatean, ezpada Espainiako gainerako tokietan eta Europan ere, lehen sektorea eta nekazaritzako eta abelazkuntzako industria ahultzeko arriskua baitago.

Akordio hori ezagutu diren baldintzetan izapidetu eta onetsiko balitz, behin-behinean jarriko litzateke indarrean, eta horrek munduan merkataritza askeko gune handi bat sortzea ekarriko luke. Zalantzarik gabe, horrek Europako ekonomiaren beste sektore batzuei mesede egin die, baina gaur egungo baldintzetan onetsiz gero, Nafarroako lehen sektorea eta nekazaritzako eta abelazkuntzako industria ez ezik Espainiakoa eta Europakoa ere kaltetuko lirateke.

Nekazaritza Politika Erkideak ez die irtenbiderik ematen nekazaritzako elikagaien sektoreak, onetsiz gero, jasanen lituzkeen ondorio kaltegarri.

Antza denez, akordio hori blokeatzeko aukera dago oraindik, Mercosur-eko bazkideekin behin betiko sinatu aurretik.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak babesa ematen die Nafarroako nekazariei, abeltzainei eta nekazaritzako elikagaien industriari, Mercosur-ekiko merkataritza-akordioa onets daitekeela ikusita egiten dituzten erreibindikazioetan.

2. Nafarroako Parlamentuak nekazaritzako elikagaien sektorea defendatzen du agintari nazionalen aurrean, eta argi eta garbi arbuizatzen du Mercosur-ekiko balizko merkataritza-akordioa.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Nafarroako nekazaritza-sektorearen lan-baldintzak hobetzen lagunduko duten neurriak onets ditzan (bereziki, fiskalitate hobetoagoa).

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du defenda ditzan, Nekazaritza Politika Erkidearen balizko aldaketaren aurrean, zuzkidura ekonomiko nahikoaren printzipioak, eta, horrela, elikagai osasuntsuak eta kalitatezkoak ekoizten dituen nekazaritza-sektore batera bideratu ahal izan dadila, arrazoizko prezioetan, haren bizi-erapena bermatzeko.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 14an

Eleduna: Javier García Jiménez

11-26/MOC-00010. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere kezka eta arbuio sakona adierazten baitu, Venezuelako lurraldean aldebakartasunez egindako ekintza militarrek direla-eta

CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA, NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, EH BILDU NAFARROA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere kezka eta arbuio sakona adierazten baitu, Venezuelako lurraldean aldebakartasunez egindako ekintza militarrek direla-eta.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioen eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, heldu den urtarrilaren 22an Parlamentu honetako Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean egin dadila eskatzen dugu.

Zioen azalpena

Venezuelan izandako gertakari larri eta gertatu berriek, zeinak Ameriketako Estatu Batuen alde bakarrek jardueren ondorio baitira, nazioarteko zuzenbidearen printzipioen urraketa larria dakarte, bereziki estatuen subiranotasunaren errespetuari, multilateralismoari eta esku-sartzerik ezari dago-kienez. Ekintza mota horiek, nazioarteko mekanismoak alde batera utzita, segurtasun kolektiboko arkitektura ahultzen dute eta areagotzeko eta eskalatzeko eta eskualdeko eta munduko ezegonkortasunerako arriskua areagotzen dute.

Gainera, dinamika horiek baliabide estrategikoak kontrolatzera bideratutako presio geopolitiko eta ekonomikoko testuinguru batean kokatzen dira, lankidetzan oinarritutako nazioarteko ordena zuzen batekin bateraezina. Ondorioak zuzenean biztanleria zibilak jasaten ditu, gatazkaren eta bor-txazko lekualdatzearen ondorioak jasaten baititu.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekotzat jotzen da edozein erantzun politiko nazioarteko legezkotasunaren errespetuan, gatazken konponbide bake-tsuaren eta ukitutako pertsonen babes eraginkorrean oinarritzea, esparru aldeaniztun baten barruan.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak kezka eta gaitzespen sakona adierazten du Venezuelako lurraldean alde bakarrez gauzatutako ekintza militarren aurrean. Izan ere, ekintza horiek nazioarteko zuzenbidearen oinarritzko printzipioak urratzen dituzte, bereziki indarraren erabileraren eta mehatxuaren debekua eta estatuen subiranotasunaren eta lurralde-osotasunaren errespetua, Nazio Batuen Gutun-ean jasota daudenak. Ekintza horiek aurrekari oso arriskutsuak dira bakerako eta eskualde-segurtasunerako, eta biztanleria zibila arriskuan jartzen dute.

2. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Venezuelako egoera bide baketsuetatik bakarrik konpondu behar dela, elkarriketaren, negoziazioaren eta Venezuelako herriaren borondatearen adierazpen guztien errespetuaren bidez, kanpoko esku-sartzerik gabe eta nazioarteko zuzenbideari atxikita, eta berresten du prozesu politiko inklusibo batek bakarrik, venezuelarren gidaritzapean, eraman dezakeela irtenbide demokratiko, iraunkor eta giza duintasuna errespetatzen duen konponbide batera.

3. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Latinoamerika eta Karibe bake-eremuak direla, elkarrekiko errespetuaren, gatazken konponbide baketsuaren eta esku ez sartzearen gainean erai-kita, eta eskualde-batasunari dei egiten diogu, desberdintasun politikoetatik harago, eskualde-egonkortasuna arriskuan jartzen duen edozein ekintzaren aurrean. Era berean, Nazio Batuetako idazkari nagusia eta estatu kideak premiatzen ditu alde anitzeko mekanismo egokiak erabil ditzaten lan ona egiten jarraitzeko, tentsioak arintzen eta eskualdeko bakea babesten laguntzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du kezkatuta dagoela gobernuaren kontrolatzeko edo baliabide natural edo estrategikoak kanpotik administratu edo eskuratzeko ahalegin ororen aurrean, hori bateraezina baita nazioarteko zuzenbidearekin, eta eskualdearen egonkortasun politiko, ekonomiko eta soziala mehatxatzen baitu.

5. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten dio Venezuelako herriari.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 15ean

Eledunak: Carlos Guzmán Pérez, Ainhoa Unzu Garate, Laura Aznal Sagasti eta Pablo Azcona Molinet

11-25/MOC-00171. Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita inklusioa, ekitatea, gardentasuna eta tratu-berdintasuna berma ditzan Nafarroako hezkuntza-sistemaren eta aniztasuna artatzeko politiken printzipio lagaezin gisa

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran izapidetu dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita inklusioa, ekitatea, gardentasuna eta tratu-berdintasuna berma ditzan Nafarroako hezkuntza-sistemaren eta aniztasuna artatzeko politiken printzipio lagaezin

gisa. Mozioa 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari eta Geroa Bai talde parlamentarioko Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreaki jakinaraztea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00154. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita oinarrizko gizarte zerbitzuek berma dezaten beren langile guztiek kobratuko dituztela oinarrizko soldata eta kasuko osagarriak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen oinarrizko programak eta finantzaketa sistema arautzen dituen uztailaren 15eko 48/2020 Foru Dekretuaren 13. artikuluan jasotakoak

ESKUBIDE SOZIALETAKO, EKONOMIA SOZIALEKO ETA ENPLEGUKO BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordeak 2026ko urtarrilaren 13an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita oinarrizko gizarte zerbitzuek berma dezaten beren langile guztiek kobratuko dituztela oinarrizko soldata eta kasuko osagarriak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen oinarrizko programak eta finantzaketa sistema arautzen dituen uztailaren 15eko 48/2020 Foru Dekretuaren 13. artikuluan jasotakoak. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premiatzen du prozedura egokien bidez berma dezan oinarrizko gizarte-zerbitzuek langile guztiei berma diezaietela gutxienez oinarrizko soldata eta dagozkien osagarriak kobratuko dituztela, uztailaren 15eko 48/2020 Foru Dekretuaren 13. artikuluan (I. eranskina) jasotakoarekin bat”.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/DEC-00003. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere doluminak eta elkartasuna adierazten baitizkie Adamuzko (Kordoba) tren-istripuan hil direnen familiei eta gertukoei

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak doluminak igortzen dizkie eta bere babes eta minik sakonena helarazten dizkie Adamuzen (Kordoba) duela ordu batzuk izandako tren-istripuan hildako pertsonen familiei eta gertukoei.

2. Nafarroako Parlamentuak zaurituei opa die laster senda daitezen.

3. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna eta babesa erakusten die istripua gertatu den lekuan biktimak eta zaurituak artatzen eta hondamendi basati horren ondorengo egoera leheneratzen lanean ari diren entitate eta pertsona guztiei”.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

